

#Zibersegurolak



Tolerantzia Interneten

[Basque CyberSecurity Centre](#) -n (BCSC) gazteen hezkuntza digitalaz arduratzen gara. Internet eta sare sozialak erabiltzen diren garai hauetan, kontzientziazioaren alde egiten dugu, bizitza digitalak izan ditzakeen mehatxuak eta arriskuak erakusteko. Horrela sortu zen “[Ziberrean, Zibersegurola](#)” kanpaina, eta haren helburua da teknologia berrien erabilerari buruz sentsibilizatzea, aniztasunetik, tolerantziatik eta haurtzaroan eta nerabezaroan txertatetik. Familiei eta hezkuntza-sektoreari zuzendua, balio horiek etxean eta ikasgeletan irakats ditzaten. Horretarako, erakunde hauen laguntza dugu: [Hirukide](#), [Kristau Eskola](#), [DBEB](#), [Gorabide](#), [PantallasAmigas](#) eta [Twitter](#).

Internetek aukera ugari eskaintzen dizkigu askotariko informazio-iturriekin; mundu osoko pertsonekin iritziak aukeratu, partekatu eta eztabaidatzeko aukera ematen digu. Aldi berean, errespetua, hezkuntza eta tolerantzia ezinbestekoa da beste pertsona batzuen iritzien aurrean eta, bereziki, ezezaguna den edo gure iritzien aurkakoa den ororen aurrean.

Azaroaren 16a [Tolerantziaren Nazioarteko Eguna](#) da eta, horren harira, Interneten tolerantziak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu; izan ere, aurrean pantaila bat dugunean, portaerak, gizarte-plataformetan edo koadrilako WhatsApp taldean, gure jarrera ez da beste pertsona batzuekin aurrez aurre agertu ohi dugunaren berdina izaten. Nola ekidin dezakegun?

Begirunearen aldeko dekalogoia Interneten:

1. Zure adierazpen askatasuna modu arduratsuan bete.

Gogoeta egin ezazu ea nola eragiten dien beste pertsona batzuei eta haien eskubideei.

2. Kritika bat egin aurretik, pentsatzeko astia har ezazu.

Ziurta zaitez aski informazio badaukazula eta egiazkoa dela, Kritika justifikatzeko adinakoa.

3. Errespetuzko tonua eta hizkuntza erabili.

Adierazpen mingarriek edo oldarkorrek sinesgarritasuna murrizten dute eta erantzun bortitzak eragiten dituzte.

4. Gogoratu iraintzea, difamatzea edo kalumniatzea ez dela adierazpen askatasunaren erabilera egoki bat egitea.

Batzuetan ondorio legalak egon daitezke.

5. Kontuan izan lintxamendu digitala bortizkeria mota bat dela.

Ez lagundu talde erasoetan, eta zure esku dagoena egin horiek gerta ez daitezen.

6. Errespetatu zu bezalakoa ez dena edo ezberdin pentsatzen duena.

Aniztasuna ikasteko eta gozatzeko aukera bat da.

7. Diskriminatuta dauden ideiak edo taldeak irrigarri uzten dituzten kateak edo memeak eten.

Erlijioa, etnia, arraza, nazionalitatea, hizkuntza, ideologia, sexu orientazioa edo genero identitatea ez dira bazterkeriarako arrazoi.

8. Gizarte talde baten aurkako mehatxua suposatzen duten edo indarkeria eragiten duten iruzkinak errefusatu.

Aurka jartzea da horiek gelditzeko modurik egokiena.

9. Saia zaitez zure babesa erakusten tratu bidegabea jasaten ari dela uste duzun horri.

Keinu txiki bat laguntza handikoa izan daiteke.

10. Tonu positiboa eta tolerantzia nabarmendu.

Internet leku hobea izan dadin lagun ezazu bizikidetza eta gozameneko giro ona sustatuz eta sortuz.

BEGIRUNEaren aldeko dekalogoia Interneten

Gorrotoaren diskurtsoen kontra, tolerantzia eta dibertsitatearen alde



© 2022 PantallasAmigas

- 1 Zure adierazpen askatasuna modu arduratsuan bete
- 2 Kritika bat egin aurretik, pentsatzeko astia har ezazu
- 3 Errespetuzko tonua eta hizkuntza erabili
- 4 Gogoratu iraintzea, difamatzea edo kalumniatzea ez dela adierazpen askatasunaren erabilera egoki bat egitea
- 5 Kontuan izan lintxamendu digitala bortizkeria mota bat dela
- 6 Errespetatu zu bezalakoak ez dena edo ezberdin pentsatzen duena
- 7 Diskriminatuta dauden ideiak edo taldeak irrigarri uzten dituzten kateak edo memeak eten
- 8 Gizarte talde baten aurkako mehatxua suposatzen duten edo indarkeria eragiten duten iruzkinak errefusatu
- 9 Saia zaitetz zure babesa erakusten tratu bidegabea jasaten ari dela uste duzun horri
- 10 Tonu positiboa eta tolerantzia nabarmendu

Kanpaina honen helburua da eremu digitalean dauden gainerako pertsonak errespetatzea, kultura positiboa sustatzeko, eta Interneten gatazkak eta oztopoak sortzea saihesteko. Horretarako, Internet erabiltzeak tentsio, mehatxu edo informazio faltsurik sor ez dezan arauak ezartzen saiatzen da BCSC. Horrela bakarrik lortuko dugu gizarte tolerantzia eta aktibitate digitala. Errespetua izan behar dugu, eta zuhur jokatu behar dugu besteekin ingurune birtualetan, ziberjazarpenera bezalako jarrerak lekuri ez duten lekuetan, baita aurrez aurreko harremanetan ere. Horretarako, [Cyber Jendea](#) eskaintzen dugu ikastetxeen eta guraso-elkarteen zerbitzura dagoen doako programa bat, beren hezkuntza-lanean laguntzeko; izan ere, belaunaldi berriek, jatorri digitalekoek, beren erabilera menderatzen dute, baina ez dira jabetzen erabilera desegokiak dakartzan arriskuez.